

bai

ziurtagiridunen aldizkaria

11. alea | 2013ko ekaina

BEZ
Komunitatea
indartu

Bap
Euskarari

Ziurtag
Elkartea

eraldatu

Etorkizunerako
bide-orria

komunikazioa
eta sustapena

INDARTU

Ziurtagiri

ELKARTU
ESTRATEGIA

Arlo sozioekono-
mikoaren erakaldutzean
ERAGIN

bai
euskarari

ziurtagiriaren
elkartea

Arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragin



Rober Gutiérrez [Zuzendaria]
@robergutierrez

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen Hausnarketa Estrategikoari esker, gure egitasmoa sendotu eta euskararen normalizazioaren bidean urrats biziak egiten jarraituko dugu.

Hausnarketa prozesuan gaude momentu honetan, eta datozen urteetan Elkartearen helburua eta lan ildoak zeintzuk izango diren finkatzen eta zehazten ari gara. Prozesu parte-hartzailea, eraldatzailea eta emozioetan oinarrituta bultzatzen ari gara. Guretzat berebiziko garrantzia du inguruan ditugun erakundeek bertan parte hartzeak eta, horregatik, hainbat interes-talde identifikatu eta hausnarketa prozesura gonbidatu ditugu: zuzendaritza taldea, Elkartean bertan lanean ari diren pertsonak, Bai Euskarari Ziurtagiria daukaten entitateak, aholkularitza sektorean ari diren enpresak, administrazioak eta abar. Interes talde bakoitzak bere bizipenetik aztertuko du proiektua, eta ekarpen zein ikuspegi-aniztasunari esker egitasmoa aberasten eta sendotzen ari da.

Helburua adostu dugu: "Arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragin". Espazioak euskalduntzea estrategikoa da hizkuntza

batean normaltasunez bizi ahal izateko. Horregatik, berebiziko garrantzia du alor sozioekonomikoaren espazioetan euskarari lekua egiteak. Lanean ematen dugun denboragatik edota produktu eta zerbitzuen kontsumitzaile izateagatik, eragina du lan munduak gure bizimoduan eta hizkuntza jardueran.

Denok eragile gara, eta hor kokatu behar da Bai Euskarari Ziurtagiriak etorkizunean ere egin nahi duen ekarpena. Baina hori ez da nahikoa. Horretarako, gainera, alor sozioekonomikoan aritzen den aktore bakoitzaren zereginak ondo finkatu behar dira. Garrantzitsua da lan mundua euskalduntzeari begira zeresana duten aktoreak ezagutzea eta horietako bakoitzak zein funtzio bete behar duen argitzea. Guztion arteko elkarlana, osagarritasuna eta laguntza guztiz beharrezkoak dira.

Etorkizunean Bai Euskarari Ziurtagiriak urrats biziak ematen jarraitu nahi du, eta jarraituko du, alor honetan esku-hartze zuzena duten aktoreekin. Erronkari erantzukizunez heldu nahi diogu, euskaraz lan egin nahi dugulako, euskaraz kontsumitu nahi dugulako, euskaraz saldu eta erosi nahi dugulako. Euskaraz bizi nahi dugulako.

kolaborazioa 03

Arritxu Zelaia, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteko lehendakaria

berriak 04

Lan mundua euskalduntzeko gida-lerroak

bai euskarari saria 06

Vusa Eraikuntzak: "Arlo pribatua euskalduntzea lortzen ez badugu, nekez lortuko dugu gizartea euskalduntzea"

bai euskarari saria 08

Akuilu lanari eta konpromisoari saria

bai euskarari laguna saria 10

Anaje Narbaiza: "Euskara txertatzeko prozedurak enpresa politikan txertatu ditugu"

erreportajea 12

Arlo sozioekonomikoaren euskalduntzea jomuga

Argitaratzailea: Ziurtagiriaren Elkartea www.baieuskarari.org | Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain t. 943592148 | 1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona t. 0559255041 | Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo t. 902430026 | Pedro Asua, 27 behe - 01008 Gasteiz t. 945215196 | Martzelo Zelaia, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa 31014 Iruñea t. 902430026

Zuzendaria: Rober Gutiérrez | Kudeaketa eta erredakzio-taldea: Ziurtagiriaren Elkartea eta Kultur Atelier | Diseinua eta maketazioa: dalvez | Argazkiak: Ziurtagiriaren Elkartea | Inprimatzailea: Leitzaran | Banaketa: Ziurtagiriaren Elkartea | Lege gordailua: SS-497-2010

@baieuskarari

baieuskarariziurtagiria

www.baisarean.org



TALLERES
MITXELENA, S.COOP.

Ezlaigo poligonoa, 21^a Herri, Gipuzkoa
Tel.: 943 552 512 / 552 516 * Fax: 943 552 816
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com



Arritxu
Zelaia

**Gure estrategia
eraikitzerakoan
pentsatu-egin
zikloa osatuz,
inguruko egoe-
ra-aldaketei
malgutasunez
eta arin eran-
tzuteko gai
izango gara**

[Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteko lehendakaria]

Bidelagunak

Zertan asmatu dugu? Zertan ez dugu asmatu? Zeintzuk dira aukerak/erronkak? Hiru galdera horiekin heldu genien urte hasieran hausnarketa estrategikoaren lehen pausoei. Galderak nori egin izan zen lehenengo bidegurutzea. Geure buruari bakarrik egitea izango zen bide laburrena eta errazena, baina ez onena. Horregatik, Bai Euskarari Ziurtagiria sortu zenetik hona, bidelagunak izan ditugunengana jo genuen galdera horiek egiteko asmoz.

Plan estrategikoen asmoa hiru-bost urterako estrategiak, helburuak eta ekintzak zehaztea izan ohi da, eta helmugara begira jarri ohi gara. Baina plan estrategikoa diseinatzerakoan, askotan emaitzari erreparatzen zaio, txostenari alegia, eta ez prozesuari, bideari. Amaierako txostena izatea ez da guk ezarri dugun helburua. Bidea, egiten ari garen heinean eraikitzen ari gara. Hasieratik hasten da bidea egiten, eta nola egiten den berak ere garrantzia du, ez helmugak edo helburuak bakarrik.

Horrelako prozesuetan, batzuetan dena planifikatzen, xehatzen eta ia-ia etorkizuna aurreikusten ere saiatzen gara. Alabaina, Plan Estrategiko hau amaitzen dugunean, abiapuntuko egoera eta une horretakoa desberdina izango da. Zein aukera dugu

orduan? Plan Estrategikoen inguruan izan dugun kontzeptua eta lantzeko modua aldatzea. Gure estrategia eraikitzeko orduan, pentsatu-egin-pentsatu-egin zikloa osatu, eta horrela, inguruko egoera-aldaketei malgutasunez eta arin erantzuteko gaitasuna izango dugu.

Hobetzeko, eraldatzeko bidea egingo dugu. Lan munduan euskararen normalizazioan eragiteko sortu zen Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea, eta asmo horri gozoz helduko diogu aurrerantzean ere. Horretarako, egin behar dugunaren zertzelada nagusiak mahai gainean ditugu: Bai Euskarari Ziurtagiriaren komunitatea indartu, ziurtagiria tresna modura sendotu, eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko eragile izan, eta egiteko moduari, lidergoari eta komunikazioari dagokienez, elkartea eraldatu.

Orain arteko hausnarketan bidelagun izan ditugu, edo gara, eragile taldeko ki-deak, ziurtagiridunak, zuzendaritzako ki-deak, Kontseiluko kideak eta lankideak, erakunde publikoak eta proiektuan urteotan modu batera edo bestera parte hartu izan dutenak. Eskerrik asko guztioi, eta hausnarketa prozesuan jaso dugun ekarpena orain bidelagun guztiei bueltan ematea dagokigu.

Lan mundua euskalduntzeko gida-lerroak



Kontseiluak enpresei, langileei, bezeroei eta administrazioari begira prestatu duen ekarpena aurkeztu du

Lan Mundua Euskalduntzeko Konferentzia antolatu zuen Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak joan den ekainaren 13an Arrasateko Polo Garaian. Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearekin eta aholkularitza sektorean dabilen bazkideekin euskarak lan munduan duen egoeraren inguruan egindako hausnarketa konpartitu nahi izan dute konferentzian.

Duela urte eta erdi Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearekin eta lan-munduko aholkularitzen sektorea osatzen duten bazkideekin (Elhuyar Aholkularitza, Artez, Ahize, Emun, Iberba) lan munduaren euskalduntzeari buruzko diagnostika eta etorkizuneko erronkak definitzen hasi zen Kontseilua. Eta joan den ekainaren 13an aurkeztu zituen lan munduaren euskalduntzean eragiten duten gainerako eragileen aurrean.

Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbaoren hitzetan ezin bestekoa zen urrats hori egitea, "beste aktore batzuen esku-hartzea beharrezkoa delako haien ekarpenak jasotzeko". Eta aktore horien guztien iritziak izan ziren Konferentzian; sindikatuenak, enpresariak, kontsumitzaileenak eta administrazioenak.

Bertan izan ziren, besteak beste, EAEko hiru aldundiak, Eusko Jaurlaritza, CCOO, ELA eta LAB sindikatuak, EKA kontsumitzaileen elkarteak edota hainbat enpresa: Eika, Mapsa, Cegasa, IMH, GSR, Elay, Orkli, Cikautxo, MCC, ordezkariak (Ulma, Metro Bilbao, Kutxa Fundazioa, Erkide, Fagor, Electra Vitoria, Eusko Tren, Goizper, CAF, Izfe, etab.

Haiekin batera, Kataluniako Generalitateko Joan Ramon Solé i Durany-ren eskutik kanpoko esperientzia bat partekatzeko aukera izan zuten Arrasaten bildutakoek. Horrela, Generalitatek eremu sozio-ekonomikoan katalanaren erabilera sustatzeko baliatu dituen estrategiak (legeria, sustapena, kontratazio-politikak, hizkuntza-klausulak...) bai eta estrategia horien bidez lortutako emaitzak ezagutzeko aukera izan zen.

Euskalduntzeko gida-lerroak

Konferentziaren ardatza, baina, Kontseiluak eta beste eragileek lan mundua euskalduntzeko prestatu duen adierazpenaren aurkezpena izan da. Ekarpak aurrera begira enpresek, administrazioek, kontsumitzaileek eta sindikatuek jarraitu beharreko gida-lerroak jasotzen ditu. Antolatzaileen esanetan, gida-lerro hauek jarraituz, "guztion artean, lan mundua euskalduntzeko aukera izango da" **X**





Kontseilua, Emun, Elhuyar, Artez, Bai Euskarari, Ahize eta iBerkak sustatutako proposamena da

Gida-lerroak lau jomuga dauzka:

Enpresei dagokiena

Beharrezkoa da enpresek euren hizkuntza-politika propioa lantzea eta adostea. Horren baitan, langileei ordutegi eta egutegi aldetik erraztasunak eskainiko dizkiete euskaraz lan egiteko gaitasuna eskura dezaten. Aldi berean, enpresei dagokie euren bezeroekin eta langileekin dituzten hartu-eman guztiak euskaraz garatu ahal izateko baldintzak bermatzea. Horretarako, helburu, neurri, epe eta bitarteko zehatzak dituzten prozesuak garatu beharko dituzte.

Langileei dagokiena

Langile guztiek euskaraz lan egiteko eskubidea gauzatu dezaten, ezinbestekoa da lehen-lehenik lankide guztien euskalduntzea. Bide horretan beharrezkoa da sindikatu edo langileen ordezkariak sektoreka edota enpresekin negoziatzen dituzten lan-hitzarmenetan lan-jardueira euskaraz garatzeko neurriak jasotzea.

Bezeroei dagokiena

Kontsumitzeko moduak bizi kalitatea hobetzen eta mundu justuago bat bultzatzen lagun dezake. Horrela, beharrezkoa da, herritarrek kontsumo arduratsua garatzea eta hizkuntzekin ere gizarte-erantzukizunez jokatzaren duten enpresak lehenestea. Kontsumo-ohiturez harago, kontsumitzaileek enpresei hauek eskaintzen dituzten produktu edo zerbitzuak euskaraz jaso nahi dituztela azaltzeko bideak jorratu behar dira.

Administrazioei dagokiena

Administrazioari dagokio herritarren eskubideen bermatzailea izatea, bai eta bide horretan eredu garri izatea ere. Horrela, langileen euskaraz lan egiteko eskubidea, enpresen euskaraz saltzeko eskubidea eta kontsumitzaileen euskaraz erosteko eskubidea bermatzea izango dute zeregin nagusia. Horretarako, hizkuntza-politika berri eragingarria garatu behar dute. Hizkuntza-politika honek bi jardunbide garatu beharko ditu modu koordinatu eta eraginkorrean: diru-laguntza bidezko sustapen-bidea eta corpus juridikoa garatuz jorratu beharreko arau-bidea. Biak ala biak dira beharrezkoak eta eraginkortu beharrekoak gaur-gaurkoz. Administrazioei eredu garri izatea ere badagokienez, bide horretan bere zeregin nagusia barne euskalduntze prozesua alaitzen burutzea eta kanpo kontratazioetarako hizkuntza-klausulak jartzea izango da.



elkar **libbuk**

euskaraz dakien eReaderra
elkar-en eskutik



elkarlibbuk@elkar.com
www.elkar.com

elkar



“Arlo pribatua euskaratzea lortzen ez badugu, nekez lortuko dugu gizartea euskalduntzea”

VUSA Eraikuntzak 2003an eskuratu zuen Bai Euskarari Ziurtagiria eta aurten Bai Euskarari Sarietako bat jaso du

2003. urteaz geroztik euskara lan munduan txertatzen dabil etengabe Vusa eraikuntza-enpresak: errotilazioa, itzulpenak, langileentzat euskara eskolak, eta abar. Era berean, aipagarria da gizartearekiko duen konpromisoa ibilaldia edo kirol frogak babesten. **Oihana Urrutikoetxea** Departamentu Komertzialeko arduradunarekin eta **Larraitx Artetxe** euskara teknikariarekin elkartu gara sariaz eta enpresaz hitz egiteko.

VUSA Eraikuntzak familia-izaerako enpresa da, 2020an ehun urte beteko ditu.

Oihana Urrutikoetxea: Hala da. Nire aitonak, Valeriano Urrutikoetxeak, sortu zuen. Gaur egun gure lana lau jardura-eremutan biltzen da, beti ere eraikuntzarekin lotuta: industria-pabiloiak, etxebizitzak, herri-lanak eta urbanizazioak. Berrogeita hamar langile ari gara horretan.

Eraikuntza enpresa euskara plana txertatzen, ez da erronka makala!

Larraitx Artetxe: Horixe da daukagun zailtasunik handiena! Gure sektorean, nahitaez, gaztelara jo behar izaten dugula maiz. Gurea oso hizkuntza tekniko da, eta terminologia hori euskaraz erabiltzeko ohitura falta dago.

O.U.: Hori egia izanik, eta zonaldearen arabera, esan beharra dago geroz eta gehiago direla zerbitzua euskaraz eskatzen diguten bezeroak.

Horretarako gaitasuna baduzue. Oker ez baldin bago, 2003 urteaz geroztik ari zarete euskara planak txertatzen, ezta?

O.U.: Hala da, bai. Urte horretan eskuratu genuen Bai Euskarari Ziurtagiria -Euskararen bidean maila dauka enpresak-. Diagnostika egin genuen, estilo liburua ezarri eta euskarazko eskolak ematen hasi ginen langileekin. 2004. urte bukaeran enpresak euskara teknikaria kontra-

tatzea erabaki zuen, eta hori izango da mugarri garrantzitsuenetarikoa.

L.A.: Erabaki estrategikoa izan zen, euskara plana dinamizatzeko aukera eman zuelako: langileei eskolak ematea erraztu zuen, unean uneko itzulpenak egitea...

Ordura arte VUSAk nolako harremana zuen euskararekiko eta nola aldatu da?

O.U.: Izugarri aldatu da. Euskara plana txertatzea erabaki genuen arte, langileon arteko komunikaziorako hizkuntza gaztelara zen. Egun euskara txertatzea lortu dugu,

Bai Euskarari Ziurtagiriak euskalduntze prozesuan bide-orria diseinatzen eta talde-izaera sentimendua garatzen laguntzen du

gaztelarekin protagonismo konpartitua den arren. Idatzizkoan etorri dira aldaketa nagusiak, guztia elebitan egiten baitugu.

L.A.: Orain, lehen ez bezala, lan kontuak euskaraz naturaltasunez jorratzeko kontzientzia zabaldu da. Agian hori da aldaketarik handiena. Baina ez bakarria. Harreran, esaterako, euskara lehenesten da, errotuluetan euskararen



Oihana Urrutikoetxea eta Larraitz Artetxe Vusako bulegoetan.

Proiektuak euskaraz aurkeztea ez zaizu burutik pasa ere egiten, administrazioak horri balioa ematen hasten diren arte

presentzia nabarmena da, eta horrek guztiak langileen hizkuntza ohituretan eragin du.

Langileen partehartzea ezinbestekoa da halako prozesuetan. Nola hartu zuten erabakia?

O.U.: Orokorrean jarrera oso ona izan da. Eskolak jasotzeko prestutasuna agertu zuten, argitaratu beharreko material guztia bi hizkuntzetan idatzi behar dela barnerratu dute, euskara gehiago entzuten da...

L.A.: Bai, baina zenbaitetan konfiantza falta sumatzen zaie; terminologia menperatzen ez dutenean gaztelerara jotzeko tendentzia dago eta. Egunerokoan, eta batez ere ahozko hizkuntzan, aurrerapausoak eman behar ditugu oraindik.

Bai Euskarari Saria akuilu izan daiteke. Nola hartu duzue saria jasotzeko albistea?

O.U.: Oso pozik. Horrelako errekonozimenduak beti hartzen dira gustura, are eta gehiago garai gogorretan, krisi garaian.

L.A.: Erabat ados, batez ere hasitako bideari jarraipena emateko. Hastea erraza izaten da, mantentzea da zaila.

Gainera, inpresioa daukat gauza berriak egin ezean, ez dela egiten duzun lana baloratzen. Ez da justua. Gure lan esparrua Bilbo eta ingurunea da, eta euskaraz lan egitea ez da erraza. Horregatik diot gure zonaldean euskara plana indarrean jarri eta hamar urteren bueltan mantentzeak izugarritzko balioa duela.

Zein bide jorratu beharko lirateke alor sozio-ekonomikoan euskararen erabilera indartzeko?

L.A.: Arlo pribatua euskalduntzea lortzen ez badugu, nekez lortuko dugu gizartea euskalduntzea. Hori esanda, iruditzen zait administrazioek ere badutela zer esana. Bertatik ematen diren pausoak oso garrantzitsuak dira. Adibidez, proiektuak euskaraz aurkeztea ez zaizu burutik pasa ere egiten, horri balioa ematen hasten diren arte. Administrazioetatik euskara lehenesten hasten badira, enpresok norabide horretan urratsak emango ditugu, hori oso argi ikusten dut.

Nola baloratzen duzue esparru horretan Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak egiten duen lana?

L.A.: Edozein esparrutan euskararen alde urratsak emateko, kontzientziak astindu behar dira, eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak lan hori oso ongi betetzen du. Eta ez hori bakarrik, euskalduntze prozesu horretan bide-orria diseinatzen laguntzen du, eta hori oso baliagarria da, galduta gabiltzalako. Talde izaera sentimendua gartzen laguntzen du, eta hori ere inportantea da.

Zer eman dio Ziurtagiriak zuen enpresari?

L.A.: Bidea egiten lagundu digu. Enpresa bakoitzak bere funtzionatzeko modua du, baina bide-orri horrek asko erraztu du gure lana.

Bezero berriak lortzen eragiten al du?

L.A.: Zonalde euskaldunetan balio erantsia da, eta adibide bat jarriko dizut. Azkoitia-Azpeitia inguruan ez ezazu iragarki bat gazteleraz jarri, ez duzu etxerik salduko. Zonaldearen arabera eragina handiagoa edo txikiagoa da.

Eta zein da zuen enpresak euskarari egiten dion ekarpenik handiena?

O.U.: Egunerokotasunean euskara txertatzen ahalegintzen gara, eta neurri apalean bada ere, gure hondar alea jartzen dugu euskarari beste arnas gune bat emateko. Eraikuntza sektorean euskararen presentzia txikia da oso, eta gure ahaleginak balio badu euskarari bere leku-txoa egiteko, nahiko pozik geundeke **X**

Akuilu lanari eta konpromisoari saria

Leitza, Goizueta, Areso eta Aranok osatze duten eskualdean Bai Euskarari Ziurtagiria duten entitateek jasoko dute Bai Euskarari saria, kolektibo batek jasotzen duen lehena



Berezia da aurtengo Bai Euskarari Sarietako bat. Izan ere, orain arteko gainontzeko zazpi sarituek bezala, ez du enpresa batek jasoko, talde edo kolektibo batek baizik: *Leitza, Goizueta, Areso eta Aranok Bai Euskarari Ziurtagiria duten entitateak*, hain zuzen ere. Modu horretan, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek eskualde horretan Bai Euskarari Ziurtagiria daukaten ostalari, merkatar, elkarte nahiz enpresak saritu nahi izan ditu.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren egitasmoak bederatzi urte daramatza Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko osatzen duten eskualdean, eta egun 44 dira Bai Euskarari Ziurtagiriarekin jarraitzen duten bertako entitateak.

2004. urteaz geroztik azpimarregarria izan da, eta izaten ari da, bertako ostalari, merkatar, elkarte nahiz enpresek Bai Euskarari egitasmoarekin eta lan mundua euskalduntzeko helburuarekin izandako konpromisoa.

Entitate horiek, zailtasun administratibo, sozial eta politiko guztien gainetik, beren eguneroko lan jardunean euskararen erabilera areagotzen jarraitzeko helburua berretsi dute urtez urte. Eta neurri batean, beste zonalde batzuetakoentzat eredugarri dira, traktore lana egiten dutelako eta beren jokaerarekin eragile izaten ari direlako.

Horregatik, aurtengo Bai Euskarari Sarietako bat kolektiboan izango da eta enpresa bati eman beharrean, eskualde horretako Ziurtagiridunei maila kolektiboan ematea erabaki du Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen zuzendari-tza-taldeak.

Bezeroarekin harremanak

Nafarroako ipar-mendebaldeko alor sozio-ekonomikoan euskararen erabilera eragiten dute modu batean edo bestean. Izatez eremu euskalduna izanik, ahozko euskarazko harrera nahiko berratsuta zegoen; beraz lorpen handienak bezeroarekiko harreman-elementuetan egin dira, batez ere hizkuntza paisaian (kartelak, erro-tuluak, eta abar) eta bezeroarekiko idatzizko harremanean (aurrekontuak,

kutxako tiketak, bisita txartelak, informazio orriak, eta abar).

Dabid Anaut eskualdeko euskara teknikaria da. Eta ongi ezagutzen du bertako errealitatea. Bere iritziz, Ziurtagiria daukaten entitateak euskara sustatzeko akuilu lana egiten ari dira, "urrats batzuk eman behar direla pentsatzetik, egitera jauzia dagoelako. Eta lan hori aitortu behar zaie".

Teknikariak pozik jaso du sariaren albiste: "euskararen aldeko konpromisoak eta jarrerak eraman ditu eragile horiek guztiak Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzerara, eta ahalegin hori aitortzea eta ezagutzea eskertzekoa da, konpromiso hori indartzeko balio dezakeelako. Sariak, azken batean, bidean urrats batzuk egin direla erakusten du, eta urrats gehiago egitera bultzatzeko balio beharko luke" **X**



bidean

euskararen
bidean

bai
euskarari

zerbitzua
euskaraz

bai
euskarari

zerbitzua eta lana
euskaraz

LEITZA

Aliprox - Leitza

Euskararen bidean

Altzadi Leitzako
Kultur Elkarte (ALKE)

Zerbitzua eta lana euskaraz

Amaia Arrandegia

Euskararen bidean

Aurrera Kirol Elkarte

Zerbitzua euskaraz

Biok Jantziak

Euskararen bidean

Denok Bat Guraso Elkarte

Zerbitzua eta lana euskaraz

Dia Supermerkatua

Euskararen bidean

Xumutxo, S.L.

Euskararen bidean

Erbiti Farmazia

Erleta Haur eta Lehen

Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa

Zerbitzua euskaraz

Etxe-Tresnak S.L.

Euskararen bidean

Gaztañaga Taberna

Euskararen bidean

Gaztelu iturgintza S.C.L

Euskararen bidean

Gorritz axuri eta gazta

Zerbitzua euskaraz

Haur Eskola - Leitza

Zerbitzua eta lana euskaraz

José Larrañaga S.A.

Euskararen bidean

Karrape Irratia

Zerbitzua euskaraz

Leitza Garajea

Euskararen bidean

Leitzako Jubilatuen Elkarte

Euskararen bidean

Lizarraga Harategia S.L

Zerbitzua euskaraz

Mendibil Mendi Taldea

Zerbitzua eta lana euskaraz

Musunzar Ostata

Euskararen bidean

Peritza Taberna

Zerbitzua euskaraz

Perurena Harategia

Euskararen bidean

SDCR Guratz Mendi Elkarte

Zerbitzua euskaraz

Torrea Gastronomía eta

Kultur Elkarte

Zerbitzua euskaraz

Urkiola Harategia

Euskararen bidean

Zortziko Labetxea S.L.

Euskararen bidean

Zurlan Zurgindegia S.L.L

Zerbitzua euskaraz

ARESO

Aresoko Guraso Elkarte

Zerbitzua eta lana euskaraz

Leiza Mandriladora

Euskararen bidean

Nazabal eskola

Zerbitzua eta lana euskaraz

Pake - Toki Elkarte

Zerbitzua euskaraz

Usoa Ehiztarien Elkarte

Zerbitzua euskaraz

GOIZUETA

Amaia Okindegia Kafetegia

Zerbitzua euskaraz

Ansa Janari Denda

Zerbitzua euskaraz

Apezetxea, S.L.

Euskararen bidean

Basahuntz Ehiztari eta

Arrantza Elkarte

Zerbitzua euskaraz

Goizuetako Estankoa

Zerbitzua euskaraz

Goizuetako Gazte Asanblada

Zerbitzua eta lana euskaraz

Gurasoak Guraso Elkarte

Zerbitzua eta lana euskaraz

Iskibi Kanpina SI

Zerbitzua euskaraz

Umore Ona Elkarte

Zerbitzua euskaraz

Ximon Harategia

Zerbitzua euskaraz

Zeferino Apezetxea

eta Semeak S.L.L.

Zerbitzua euskaraz



www.elhuyaraholkularitza.net
aholkularitza@elhuyar.com



ELHUYAR
aholkularitza

ELHUYAR Aholkularitza
eraldatzeko giltza



ehiztariak
hormak



ehiztariak eta gizonen
bukar berrikuntza



berrikuntza
parte hartzea

Bai Euskarari Laguna Saria Anaje Narbaiza bergararrak jaso du, Antzuolako Elay enpresako metrologia arduradunak. Autoetako piezak egiten dituzte mundu osorako eta 1987an lana euskaraz egin nahi zutela erabaki zuten, tartean zen gure saritua. Elay aitzindaria izan da euskara planak txertatzen, eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren “Zerbitzua eta Lana euskaraz” maila eskuratu zuen lehendabiziko enpresa izan zen, 2002an. Saria Anajek jasoko badu ere, Elayren saria dela dio.

ANAJE NARBAIZA, Elay enpresako metrologia arduraduna

“Euskara txertatzeko prozedurak enpresa politikan integratu ditugu”

Kirmen Uribe, Xabier Mendiguren Bereziartu, Joxe Anjel Iribar... eta laugarren edizioan Anaje Narbaiza eta Elay.

Hirurak erreferenteak dira euskararen munduan. Sariak haien maila berdinean jartzen gaitu, eta horrek sekulako poza ematen digu. Errekonozimendu handia da eta hunkituta gaude, eta apur bat beldurtuta.

Zein ekarpen egin diozue euskarari?

Lana euskaraz egin daitekeela sinistea, eta sinisten genuen hura gauzatzea posible dela azaltzea. Zentzu horretan, atzetik datozen enpresentzat eredu bat ezarri dugu.

Prozesu guztia azaltzea ezinezkoa da, baina mugariak zehaztea eskatuko dizut.

1987. urtean langile batzordeak, sindikatu guztien babesarekin –ELA, LAB, CCOO eta UGT– eta aho batez, euskaraz lan egin nahi zuela onartu zuen, eta proposamena aurkeztu zen zuzendaritzan. Egitasmoak finantzazioa behar zuen, eta Eusko Jaurlaritzak urte eta erdi beranduago frogatu pilotu moduan garatzea onartu zuen. Elhuyarrek bidegarritasun plana egin zuen, eta lehenengo ekintza planak 92ko otsailean abiatu genituen. Lau urteren buruan enpresak hartu zuen bere gain euskara planaren ezarpena. Euskara Batzordea sortu zen eta bertatik kudeatu zen.

Prozesua gorabeheratsua izango zen.

Ekilibrista moduan aritu gara, oreka mantendu nahian. Antzeko eredurik ez zegoen, eta ibilian ikasi dugu. Erabakiak hartu eta hartutako erabaki horiek zuzendu. Prozesua

eta prozedurak sistematizatzea izugarri kosta zaigu, baina 1987an zientzia fikzioa zirudiena errealitate bilakatzea lortu dugu.

Hamar egun atzera, ekainaren 18an, beste urrats kualitatibo garrantzitsua eman zenuten.

Hala da, bai. Normalizazio fasera pasatu gara. Euskara planak, euskara batzordea... desagertu egin dira, eta euskara txertatzeko prozedurak enpresa politikan integratu dira erabat. Jada ez da nahikoa piezak ongi egitea, segurtasun neurriak errespetatuz eta hondakin gutxi sortuz. Hiru zutabe horiek ziren Elayren ezaugarri, orain laugarren hanka gaineratu dugu, euskaraz egitea.

“Bi Ziurtagiri egoteak ez du zentzurik. Osagarri izateko baldintzak ematen dira; osagarritasun hori bideratu behar da”

Nork gidatu behar du prozesua? Enpresek, langile euskaldunak kontratatuz; administrazioak, euskara lehenetsiz; langileak, hizkuntza eskubideak aldarrikatuz...

Lehenengo baldintza euskaraz lan egitea posible dela sinistea da, haratago noa, onuragarria dela sinistu behar dugu. Baldintza hori emanda, administrazioak baliabideak jarri behar ditu, baliabide indibidualak, hemen ez du baliokafesnea guztiontzat ereduak. Langileek traktore lana

egin behar dute, bultzada emanez. Eta enpresek aplikatu behar dute onuragarria dela sinetsiz.

Sinistearen garrantzia aipatu duzu. Sinisten da?

Oraindik ez. Bi ustek kalte handia egiten dute: beldurrak eta ulermenak. “Euskaraz esaten badut ez didate ulertuko,” pentsamendu horrek izugarrizko kaltea egiten digu, lehenengo hitza euskaraz egiteari beldur diogu. Beraz, hor badago aldaketa premia bat. Euskaraz hitz eginda ez dugu inor kaltetzen, alderantziz, erregalo bat egiten gabilta: hizkuntza bat, euskara kasu honetan, oparitzen ari gara.

Ulermena aipatu duzu bigarren faktore gisa.

“Euskara ez dakitenak baztertu egingo ditut” horrek ez du hankarik ez bururik. Ez, ez dugu inor baztertzen. Erakutsi egiten dugu; hori bai, esfortzu bat eskatzen du, baina Erresuma Batura lanera doanak ingelesa ikasten duen

bezala, hemen euskara ikasi beharko du. Errespetuz, beti ere. Gurean, adibidez, zenbait langilek plana onartu arren, eta arrazoi ezberdinak tarteko, euskara ikasteko ahalegirik egingo ez zuela adierazi zuen. Ez da ezer pasatzen. Epe luzeko perspektiba batean ez da garrantzitsua, langileak aldatzen doazelako, eta enpresa da beti geratzen dena.

Maratoi luze honetan nola ikusten duzu Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea bezalako erakunde bat?

Lan garrantzitsua betetzen du. Alor sozio-ekonomikoan euskararen presentzia sustatu nahi badugu, enpresetara, handi, ertain eta txikietara, planteamendu serioekin heldu behar da, eta Ziurtagiriaren Elkartea funtzio hori betetzen du. Gainera geografikoki oso eremu zabala hartzen du, Eusko Jaurlaritzak hartzen ez duen eremua.

Eusko Jaurlaritza aipatu duzunez, hark Bikain Ziurtagiria kudeatzen du. Eta bestetik Bai Euskarari Ziurtagiria dago. Elayn biak dituzue. Zein iritzi daukazu bikoizketa honen inguruan?

“Lehenengo baldintza lana euskaraz egitea posible dela sinistea da, haratago noa, onuragarria dela sinistu behar dugu”

Halako Ziurtagiri batek izaera publikoa izatea egoki ikusten dut, eta horrela izan behar duela pentsatzen dut. Hori esanda, gaur egungo egoeran bi Ziurtagiri egoteak ez du zentzurik. Bata bestearen osagarri izateko baldintzak ematen dira, eta osagarritasun hori bideratu behar dela pentsatzen dut. Hitz eginez, akordioak lotuz. Hemen ez gara asko, ez daukagu mila errekurtsio. Eta ezin gara errekurtsioak banatzen hasi. Enpresentzat ere, nahasgarria da bi Ziurtagiri egotea.

Nola irudikatzen duzu euskarazko lan mundua hementik 10 urtera?

Izatez baikorra naiz, eta hobera egingo duela uste dut. Begira, 92an enpresa bakarra ginen. Gaur egun, komertzioak eta abar kanpoan utzita, 600 enpresek daukate Ziurtagiria. Beraz, ahalmena badago. Eta errepikatu egingo naiz, baina sinistea da gakoa. Ikusten dut gainera, hementxo enpresentzat ezinbestekoa dela euskara planak bideratzea eta hizkuntzen politikak finkatzea. Eta ikusten ditut enpresa horiek bide hori hartzen .



Arlo sozioekonomikoaren euskalduntzea jomuga



Horixe da, hain zuzen, sei hilabeteko hausnarketa prozesuan Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarateak zehaztu duen etorkizuneko helburu nagusia

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarateak bukatzeaz du urtarrean hasitako Hausnarketa Estrategikoa. Datozen urteetan Elkaratearen helburua eta lan ildoak zeintzuk izango diren finkatzen eta zehazten dabil azkeneko sei hilabeteotan Elkaratea, Rober Gutiérrez Ziurtagiriaren Elkarateko zuzendariaren hitzetan, “egitasmoa sendotu eta euskararen normalizazioaren bidean urrats biziak ematen jarraitzeko”.

Zuzendariak hitz gutxitan laburbildu du prozesuaren oinarria: “parte-har-tailea, eraldatzailea eta emozioetan

oinarrituta”. Eta filosofia horrekin iritzi eta ekarpen asko jaso dira: zuzendari-tza taldekoenak, Elkarateko langileenak, Bai Euskarari Ziurtagiria daukaten entitateenak, aholkularitza sektorean ari diren enpresenak, administrazioare-nak, eta abar. Interes talde bakoitzak bere bizipenetik aztertu du proiektua, eta haien ekarpen eta ikuspegi anizta-sunari esker egitasmoa “aberasten eta sendotzen” ari den uste sendoa dago.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarate lan munduan euskararen normaliza-zioan eragiteko sortu zen, eta aurre-

rantzean asmo horrekin jarraitzea be-rretsi da Hausnarketa Estrategikoan. Hala, arlo sozioekonomikoaren euskal-duntzean eragitea izango da Elkaratearen betekizun nagusia.

Horretarako, baina, egin beharreko zertzelada nagusiak mahai gainean jarri dira. Arritxu Zelaia Ziurtagiriaren Elkar-teko lehendakariak eman digu hauen berri: “Bai Euskarari Ziurtagiriaren ko-munitatea indartu, Ziurtagiria tresna modura sendotu, eremu sozioekono-mikoa euskalduntzeko eragile izan, edota egiteko moduari, lidergoari eta

komunikazioari dagokionez, elkarteak eraldatu."

Zertzelada nagusiak dira horiek, baina lehendakariak argi utzi du estrategia eraikitzeako orduan "inguruko egoera-aldaketei malgutasunez eta arin erantzuteko gaitasuna izateko moduan aritu direla".

Eva Isasi E+I enpresako aholkulariak gidatu du hausnarketa, pertsonengan oinarritutako eraldaketa prozesuetan espezialista da bera. Sei hilabeteko prozesuan dozena inguru bilerak egin dituzte; horietako erdiak, gonbidatu dituzten eragileekin, eta gainontzeko erdiak, prozesua gidatu duen talde eragilearekin. Talde horretan Rober Gutiérrez Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendariak, bi teknikari, Zuzendaritza Batzordeko bi kidek eta Eva Isasi berak parte hartu dute.

"Malgutasunarekin" jokatu dutela azpimarratu du, eta estrategia eraikitzerako garaian "prentsatu-egin-pentsatu-egin" zikloa osatzen saiatu direla, merkatuko tendentziei edo aldaketei "eraginkortasunez eta azkartasunez" erantzuteko aukera ematen duelako.

Hori argituta, modu tradizionalean egiten diren Hausnarketa Estrategikoei balioa kendu die, "ez baitira eraginkorrak. Gure etorkizuna kontrolatu nahian egiten ditugun bilerak, kalkuluak, AMIAk, eta abar lasaigarri moduan balio dezakete, baina etorkizuna ezin dugu kontrolatu. Horregatik bideratu dugu Hausnarketa Prozesua

malgutasunez, merkatuko aldaketa eta tendentziei modu azkarrean erantzuteko moduan".

Halako prozesuetan konfiantza behar-beharrezkoa dela argitu du Isasik. "Konfiantza da oinarria, lehendabizi bakoitzak bere buruarekin, eta ondorioz gainontzeko eragileekin. Osagai horiekin landu ditugu Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteko estrategiak eta erronkak".

Hausnarketa prozesuetan duen esperientziatik, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea gauzatzen ari den Hausnarketa Estrategikoaren eredua azpimarratu du "parte-hartzailea eta irekia izan delako, eta horrek bertan aritu direnen inplikazioa errazten du".^x



Leitzaran Grafika, S.L.
Martin Ugalde Kultur Parkea
20140 Andoain (Gipuzkoa)
tel: 943 303510 - fax: 943 593067



- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Inprimakiak



- Aurreinprimaketa
- Inprimaketa
- Koadernaketa
- Prozesu integrala



Hausnarketa prozesuan instituzioetako ordezkariak izan dira. Hain zuzen, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Arabako Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea, gonbidatu ditugu, eta haien iritzia eskatu dugu.



Jorge Jimenez, HPSko Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria

“Hizkuntza politikaren alorrean, lankidetza ezinbestekoa da”

1. Euskalgintzan oro har, bai herri-aginteeen bai gizarte ekimenekoan, etengabeko gogoeta da lanabesik premiazkoena. Izan ere, euskararen azken 30 urteko aurrerabideak garbi erakusten digunez, guztiz loturik joan behar dute aurrerabide horretan erabakigarriak diren 3 faktore nagusiek: lege babes nahikoa, hizkuntza politika eragingarria eta baliabidez behar bezala hornitua, eta herritarren atxikimendua.
2. Hizkuntza politikaren alorrean, lankidetza ezinbestekoa da zentzu guztietan: herri-aginteen artekoa, gizarte ekimeneko eragileen artean, eta haien eta hauen artean ere. Sinergiak bilatzeko urratsei dagokionez, euskara pixkanaka gero eta gune gehiagotan zerbitzu eta lan hizkuntza izan dadin sentiberatasuna areagotzearen aldeko ekimen zehatzen ingurukoak izatea da egokiena. Bikain ziurtagiriaren sistemaren ibilbide arrakastatsua argi erakusten duenez, ezinbesteko lehen maila da enpresa eta entitateen hizkuntz konpromisoa, eta horretarako atea, jakina, langile, kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideen alorreko sentiberatasuna da.
3. Sentiberatzearen inguruko eginkizunetan asmatuz gero, ibilbide oparoa izan lezake.



Zigor Etxeburua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendaria

“Enpresarean proiektuarekin abiatu dugun lankidetza mugarri bat izan da”

1. Egokia iruditzen zaigu etorkizuneko gogoeta beste eragileekin partekatzea. Gogoeta orekatu eta eraginkorra izango bada, besteen ikuspegiak txertatu behar ditu edozein erakundek.
2. Dagoeneko abiatua dugu lankidetza bide interesgarri eta garrantzitsu bat, ENPRESAREAN ekimenaren bidez, eta mugarri bat izan dela uste dugu. Gipuzkoako Foru Aldundiaren ikuspegiarekin bat egiten du guztiz, ikusgarri egiten baitu enpresa horien ahalegina, enpresa horien arteko harreman komertzialak errazten dituelako eta gizarteari erakusten diolako euskarak baduela tokia arlo sozio-ekonomikoan, patrikatik eta praktikatik.

3. Oparoa, arlo sozio-ekonomikoaren euskalduntzea egiteko dagoen esparrua baita. 20 urtetik gora daramagun arren honetan, aurreneko urratsetan gaude, eta enpresa eta eragile asko dago oraindik bisitatu eta eragin beharra. Jendartean ere oraindik apa-legia da euskara eta lana binomio logikotzat ikustea. Bai Euskarari Ziurtagiriak asko lagundu du azken hori gizarteratzen, ondo diseinatuta dagoen tresna baita. Baina oraindik gehiago behar da.

galderak

1. Nola baloratzen duzue gurea bezalako Elkarte batek horrelako hausnarketa prozesua garatzea?
2. Ordezkatzen duzuen instituzioaren eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen artean lankidetzarako biderik ikusten duzue? Zein urrats eman daitezke horretarako, sinergiak bilatuz?
3. Nolako etorkizuna ikusten diozue Bai Euskarari Ziurtagiriari?



Maren Belaustegi, UEMAko lehendakaria

“Gaur egun bi ziurtagiri egotea ez da mesedegarria”

1. Oso ongi baloratzen dugun horrelako hausnarketa prozesu bat abiatzea. Are gehiago, kontuan hartuta Bai Euskarari Ziurtagiria bera sortu zenetik hona horretan eragina izan dezaketen faktore dezente aldatu direla (beste ziurtagiri baten sorrera, egoera ekonomikoa...).
2. UEMAK ildo berria onartu berri du, eta ondorioz funtzionamendu berria. Eta hor, herritarrei begirako zerbitzuari lehentasun gutxien emateko erabakia hartu da. Hor kokatzen da “lan mundua” deitzen diogun esparrua. Aurten behintzat zailtasunak izango ditugu Ziurtagiriaren sustapenari dago-kionean. Dena dela, UEMAK ez dizkio inolaz ere ateak itxi nahi aurrera begira lankidetzak posible bat martxan jartzeari.
3. Egungo egoera ez da egokiena Ziurtagiriarentzako, eta noski, gaur egun bi Ziurtagiri egoteak ere ez dio mesede handirik egiten. Ziurtagiriaren eraginkortasunaren inguruko kezka ere azaldu dira.

Jokin Larrañaga, Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuburua

“Bi ziurtagirien arteko uztarketa beharrekoa da, osagarriak baitira”



1. Urte batzuk pasa ondoren, tarte bat hartu eta atzera begiratu ondoren aurrerako bideari so egitea txalotzekoa da, egoera, helburuak eta bitartekoak ere aldatu direlako. Gainera eragileen arteko partaidetza bilatzen du, hobekuntzak jasotzeko ilusioak eta kritikak ere jarrera eraikitzailez.
2. Badira urte batzuk elkarlanean ari garela: Lazarraga Sariak, enpresatako Euskara Planen berri emateko jardunaldiak, Enpresarean... Aurten lehenengo aldiz Arabako lurraldea hartzen duen programa xume bati ekin diogu Giro Onean izenekoa, merkataritzan eta ostalaritzan euskararen normalizazioan eragiteko ahaleginetan. Gure lurraldean sektoreko diagnostiko sakon bat behar dugu etorkizuneko erronkak finkatzeko eta prozesu horretan Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen beharra izango dugu.
3. Momentu honetan bi euskararen ziurtagiri dauzkagu: Bikain eta Bai Euskarari Ziurtagiria. Bistan da uztarketa beharrezkoa dela, osagarriak direlako eta bakoitzak bere aldetik ez duelako lortzen eremu guztiari espero zaion zerbitzua ematerik. Bai Euskarari Ziurtagiria beharrezkotzat jotzen dugu Bikain ziurtagiria iristen ez den leku eta enpresetara iristeko.

bidera
zerbitzuak

Banaketa-Komunikazioa
Itzulpenak-Aholkularitza
Publizitatea-Dei zentroa



berria
taldea



ziurtagiriaren **elkartea**



baieuskarari.org



@baieuskarari



www.facebook.com/baieuskarariziurtagiria



www.baisarean.org

urrats biziak

